

Askapenaren Teologia Euskal Herrian

Helder Camara
Askapenaren
Teologiaren
sortzaile
ospetsuena joan
den astean hil zen



Maxux Rekalde
Helder Camararekin, Florentzian.

HELDER CAMARA «ARTZAPEZPIKU GORRIA» joan den asteko ostiralean hil zen Rácifen (Brasil). Infekzio larri batek eragin zion heriotza. Bere bizitza luzean —90 urterekin hil zen— gogor egin zuen lan behartsuen alde, eta Elizaren hainbat jokaera kritikatu zituen. Askapenaren Teologiaren sortzailetako bat, mundu justuago baten aldeko jardunean koherente izateagatik nabarmendu dute haren aldekoek.

Hastapenak eta ezberdintasunak

Askapenaren Teologiaren sortzaile Helder Camararen heriotzaren ondotik, eta korronte horren egungo egoera aztertzeko asmoz, Euskal Herrian Askapenaren Teologiari buruz aditu diren bi idazlerengana, Pablo Agirrebaltzategi eta Guillermo Mujikarengana, jo du Igandeko KZk, eta baita Jose Maria Setien gotzainaren idazkari ohi Maixux Rekalderengana ere. Duela 30 urte Hego Ameriketara sortu zen Askapen Teologia, eta gurean ere berehala izan zituen jarraitzaileak. Askapenaren Teologiak hiru zutabe nagusi ditu: pobreen alde jardutea, elkartasuna eta konpromisoari balio ebanjelikoa ematea eta fedea bizimodu gisa ulertzea.

Maixux Rekaldek gogorarazi digunez, Askapenaren Teologia ez zen sortu egungo elizari aurka egiteko, «kristautasuna konpromiso gehiagor bizi eta behartsuei laguntzeko baizik». Eta behartsuak giza eskubideen urraketa jasaten dutenak ere badirela zehaztu digu.

Pablo Agirrebaltzategik Euskal Herrian bi joera eman direla azaldu digu: «Bata, Hego Ameriketara sortu zen pentsamenduaren gorespina egitea; eta bestea, Hego Amerikan gorpuztu den pentsamendutik ikasi eta Euskal Herrian bertan pentsamendu propioa sortzen saiatzea». Lehen esan bezala, Askapenaren Teologiaren ezaugarri nagusietako bat txiroen alde lan egitea da. Pobre, hasiera batean, pobre ekonomikoa zen. «Gerora, ordea, aberastu egin da pobreen kontzeptua. Teologo gehienek zabaldu egin dute beren ikuspuntua, eta herri edo komunitateen minorizazio kultural eta historikoa asumitu egin da pobrezia kon-

tzeptu zabal horretan», esan digu Agirrebaltzategik, «eta baztertuen errealtatea hemen ere badaukagu, herriarena, hizkuntzarena...»

Guillermo Mujikaren iritziz, Askapenaren Teologia askapena eta teologia da, «eta batera doazen bi gauza izan arren, ezberdindu egin behar dira. Eta askapena herri honen zapalkuntza bezain zaharra da Euskal Herrian. Beraz, ez da kanpotik ekarritako zerbait», adierazi digu Mujikak, eta garai batean Askapenaren Teologiari ez izan arren, kristau bizimodua ulertzeko moduan askapenaren ideia bazegoela azpimarratu digu. Teologiari dagokionez, berriz, esan digunez, Ebanjelioa ezin da bizi bere askapen dimentsioa kontutan hartu gabe.

Guillermo Mujikak, ordea, ikuspegi kritiko du Euskal Herriko Askapenaren Teologiari buruz, «hala ere, horrek ez du kentzen eginiko lanaren ekarpen positiboa», zehaztu du. Izan ere, Askapenaren Teologiaren baitan, herriari buruz kontrako iritziak daudela dio, «guztioi baitakigu herriaren kontzeptu ezberdinak daudela, herria eraikitzen ari baita». Hori dela eta, bere ustez askapena ulertzeko modu ezberdinak daude.

Pablo Agirrebaltzategiren esanetan, zailtasunak izan dira Euskal Herrian askapen teologikoaren ideia garatzeko orduan: «Pobre ekonomikoa identifikatzea errazagoa da; zailagoa da minorizazio kontzeptuak biltzen duena identifikatzea. Horretaz gainera, hemen beste arazo batzuk eduki ditugu —indarkeria, bakea...—, zeinak pentsamendu propioa egiteko nolabaiteko galderak izan diren», eta oraindik ere badiren. Maixux Rekaldek arlo politikoa eta Askapenaren Teologiaren ekimena zaku berean sartu direla dio, «biak nahastuz».

Jarraitu beharreko bidea

Pablo Agirrebaltzategiren ustez, Euskal Herriko Askapenaren Teologia beste fase bate-

«Askapena eta teologia batera doazen bi gauza izan arren, ezberdindu egin behar dira. Eta askapena herri honen zapalkuntza bezain zaharra da Euskal Herrian», adierazi digu Guillermo Mujikak.

«Beharbada, hemen, ez dago pentsamendu gorpuztu bat, baina egin dira saioak», dio Pablo Agirrebaltzategik.

an sartu da, heldutasunean: «Beharbada, ez dago pentsamendu gorpuztu bat, baina egin dira saioak». Hala, Felix Plazerrek eginiko tesia, *Creer en Euskal Herria*, nabarmendu ditu. Guillermo Mujikak ere Placerren tesia aipatu du, «Euskal Herrian Askapenaren Teologiak emandako pauso guztiak jasotzen baititu». Euskal Herriko Askapenaren Teologiaren metologia lantzeko ikuspuntu kritiko batetik abiatu behar dela uste du Mujikak: «Teologia horren subjektuak zeintzuk diren, helburua zein duen eta praktikara nola eraman behar den, hots, zein konpromiso hartu behar dituen erabaki behar da». Bere ustez fedea askapen terminoetan

ulertzen duten kristau komunitateak dira aipatu teologiaren subjektuak, «eta hemen subjektu hori ahula da». Era berean, Askapenaren Teologia bete beharreko konpromisoaren bila doan fedea den, edo eta konpromiso horretatik abiatuta, fedea zer esan nahi duen argitzea ote den zehatu behar dela dio, «eta ni bigarren aukeraren alde nago, emankorra da». Beraz, eztabaidatzeko asko dago, baina garrantzitsua herri honetako arazoei fedearen aldetik erantzuteko eginiko lana dela nabarmendu digu, eta horri Askapenaren Teologia deitu edo ez, ez zaiola hainbeste axola.

Maixux Rekaldek uste du igaro dela kristau izateko garaia: «Etorbizunean jende gutxiago izango da kristau, konpromisoa hartzea eskatzen baitu; baina ez dute horregatik indar gutxiago izango». Ondorioz, Askapenaren Teologiaren jarraitzaileak ere ez dira asko izango bere ustez.

Agirrebaltzategik, berriz, ohartarazi digu kanpoko bertako dinamikatik abiatu eta pentsatzen ez duenak alienatzeko arriskua duela: «Eta horregatik sortu zen Hego Ameriketara Askapenaren Teologia, Europatik zertorren teologia kopia egiten zutela ikusita».

• Ainhoa Oiarzabal •